

æek  
22. korrika

2. ALBISTEA

2021/12/16



C1

MAILA

**Kalean da  
22. KORRIKA-kanta!**

**Nerea Urbizu, Ane Garcia eta Anariren eskutik dator!**

**HITZAREN**

**Amurriotik Donostiara**

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



## Kalean da 22. KORRIKA-kanta: HITZEKIN

### FITXA TEKNIKOA:

#### Zuzendari artistikoa eta

**musika:** Nerea Urbizu

**Kantariak:** Nerea Urbizu, Ane Garcia, Anari

**Letra:** Sustrai Colina

#### Musikariak:

Ander Zulaika: bateria

Itsaso Etxebeste: baxua

Eñaut Gaztañaga: gitarrak

Nerea Urbizu: pianoa

### ► Adi irakurri, eta hiru datu faltsu topatuko dituzu:

#### Nerea Urbizu Ruiz (Lekunberri, 1950)

Musikaria da, eta, besteak beste, Urko Oskozekin batera, *Ene Kantak* proiektuaren ..... (1) bat. Bertan, musika, dantza (koreografiak), euskara eta irudiak uztartzen dituzte, haurren eta ez ..... (2) haurren gozamenetarako. Hasiera batean, disko bat sortzea zuten helburu bakarra, baina ..... (3) bigarrena egin zuten, eta konturatu gabe 2020an beren 9. lana argitaratu zuten. Nerea 2011ra arte aritu zen Larrabetzu herrian (Bizkaia) 2007an sortutako *Katamalo* folk-eta pop-taldean ere, Gorka Urbizu (*Berri Txarrak*) nebarekin ..... (4), eta bi disko kaleratu zituzten. 2020. urtean, Nereak *Naizen* elkartearen abestia sortu zuen, hango gazte eta gurasoekin batera. *Urmuga* mendi-ibilbide musikatuan ere parte hartu du. Azkenik, bera da 22. KORRIKAREN *Hitzekin* kantaren sortzailea, baita zuzendari artistikoa ere; ..... (5), ahotssetako bat ere jarri du.

#### Sustrai Colina

#### Akordarmenteria (Urruña, 1982)

Bertsolaria, bertso-irakaslea eta kazetaria da. Hitzak jarri dizkio 22. KORRIKAREN kantari.



Irudian (AEK): Anari, Nerea eta Ane (musikari eta abeslariak)

#### Anari (Ana Rita Alberdi Santesteban; Azkoitia, 1970)

Euskal egile-abelsari bat da. 1997an hasi zen musika-munduan, eta ..... (6) bakarkako bost disko plazaratu ditu, bai eta beste bat ..... (7) Petti musikari nafarrarekin elkarlanean. Doinu goibel eta bakartiak, hitz biluziak eta atmosfera ezero-soak erabili ohi ditu, eta oso kritika onak jaso ditu. Hainbat kantarekin konparatu izan dute: PJ Harvey (zenbait girotan, *Euskal Herriko PJ Harvey* esan diote), Cat Power, Nick Cave... 2018an, Adarra Saria eman zioten (Iruñeko Udalaren saria, 2014an sortua, euskal musikan egindako ibilbide artistikoak omentzeko asmoz); sari hori irabazi duen lehen emakumea izan da Anari. Horrez gain, ahotsa jarri dio 22. KORRIKAREN kantari.

#### Ane Garcia Lopez (Hondarribia, 1994)

Itzultzaile eta abeslari lapurtarra da. *Lurra* musika-taldeko abeslaria izan da, 2011-2017 artean. Iñigo Muguruzaren (*Kortatu, Negu Gorriak*) ikaslea izan zen; ..... (8) ahotsak liluratu zuen irakaslea, eta orduan bion artean *Lurra* taldea sortzea erabaki zuten, Carlos Zubikoa (*Apurtu, Sagarroi*) eta Ander Larrañagarekin batera, 2011. urtean Irunen. Popa, reggaea eta ska soinuak jorratzen zituzten; ibilbidean bi disko atera zituzten, ..... (9) 2017ko abuztuan azken kontzertua eman zuten arte, Zarautzen. Anek ahotsa jarri dio 22. KORRIKAREN kantari.

### ► Azpimarra itzazu forma egokiak.



1. sortzailletako / sortutako / sortzaileetako
2. horrenbeste / hainbeste / horren
3. urtean / urtebetean / urte betean
4. batera / elkar / elkarrekin
5. dena den / gainera / baina
6. harrez gero / orduz geroztik / gero
7. baita / ere / \_\_\_\_\_
8. haren / beren / bere
9. harik eta / ahalik eta / al bait

## HITZEKIN (kanta)

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...

Oinetakoak lotu  
 (e)ta utzi oinei ..... *libre* .....<sup>1</sup>,  
 belarretan .....<sup>2</sup>  
 .....<sup>3</sup> bide.  
 Mapetatik .....<sup>4</sup>,  
 mundu .....<sup>5</sup> dago.  
 Sentitutakoa...  
 Sentitu (e)ta hitz ekin.

(E)ta berriro egin  
 Korrika zurekin,  
 .....<sup>6</sup> .....<sup>7</sup>  
 elkarren ederrez.  
 (E)ta berriro egin  
 mundua zurekin...

.....<sup>8</sup> kantari  
 ibiltzen ikasi;  
 ez egon .....<sup>9</sup> .....<sup>10</sup>  
 (e)ta korrika hasi.  
 Berdin da non hasten den, orain beti da hemen.  
 Pentsatutakoa...  
 Pentsatu (e)ta hitz ekin.

(E)ta berriro egin  
 Korrika zurekin  
 .....<sup>6</sup> .....<sup>7</sup>  
 elkarren ederrez.  
 (E)ta berriro egin  
 mundua zurekin  
 beti baitago norbait hitz .....<sup>11</sup> prest.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin....

Neguko eguzkitan  
 .....<sup>12</sup> azala;  
 beti .....<sup>13</sup> dagonak  
 .....<sup>14</sup> sor dezala.  
 Bizitza jendea da (e)ta jendea gara.  
 Sentitu, pentsatu...  
 Sentitu, pentsatu, hitz ekin.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...  
 Zurekin... Hitz ekin, zurekin...



### HIZTEGITXOA:

#### Lagunduko diguzu kanta eta hiztegitxoa osatzen?

1. .... *Libre* ..... : loturarik gabe
2. .... : oinutsik
3. .... : bihurtzen
4. .... : kanpo, urruti
5. .... : anitz
6. .... : eztenak, "pintxoak"
7. .... : ateratzeko
8. .... : euriaren azpian
9. .... : euria egiteari utzi
10. .... : itxaroten
11. .... : egiten hasteko
12. .... : biluztu
13. .... : zalantzarik gabe
14. .... : zalantza

#### Aukerak:

Erantzi	Harago	Ortozik
Ask	Duda	Euripean
Bilakatzen	<i>Libre</i>	Ziur
Arantzak	Erauzteko	Atertu
	Zain	Ekiteko



**Nerea Urbizu Ruiz**



**Anari  
(Ana Rita Alberdi)**



**Ane Gartzia Lopez**



**Sustrai Colina  
Akordarrementeria**

**PROZEDURA:**

- ▶ “Korrika-kanta” entzunda, burura zein kanta datorkien galdetuko diegu; kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- ▶ Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa<sup>1</sup> ikusiko dugu eskolan.
- ▶ Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipetan agertutako pertsonez zer dakiten esaten (aktoreak agertzen dira: Ainara Unanua, Ramon Agirre eta Itziar Ituño). Bideoklipak KORRIKA egiteko motibo eta modu ezberdinak daudela irudikatzen du. Jendartearen gaur egungo errealitate desberdinak “KORRIKA egiten” azaltzen dira, eta bertan, **amaiera moduan, jendea batuta euskararen aldeko KORRIKAn, hitz ekiteko** prest.
- ▶ Kantarien biografiak irakurri, eta bi kontu egin beharko dituzte (2. or.): batetik, hiru datu faltsuak topatu beharko dituzte; bestetik, ariketa egin.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

**ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):****HIRU DATU FALTSUAK:**

1. Nerea Urbizu Ruiz ez zen 1950. urtean jaio, **1980an** baizik.
2. Ane Garcia Lopez ez da lapurtarra, **gipuzkoarra** baizik, Hondarribikoa.
3. Iruñeko Udalak ez du euskal musikan egindako ibilbide artistikorik omentzen, nahi bai! Donostiako Udalak ematen ditu sari horiek.

**HUTSUNEAK:**

- |  |   |
|--|---|
| 1. sortzailetako / sortutako / <b>sortzaileetako</b> | 6. harrez gero / <b>orduz geroztik</b> / gero |
| 2. horrenbeste / hainbeste / <b>horren</b>           | 7. baita / <b>ere</b> / _____                 |
| 3. urtean / <b>urtebetean</b> / urte betean          | 8. <b>haren</b> / beren / bere                |
| 4. <b>batera</b> / elkar / elkarrekin                | 9. <b>harik eta</b> / ahalik eta / al bait    |
| 5. dena den / <b>gainera</b> / baina                 |   |

- ▶ Kantari dagokion ariketa egingo dute (3. or.).
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

**ERANTZUN ZUZENAK:**

- |                          |                                  |                             |
|--------------------------|----------------------------------|-----------------------------|
| 1. Libre: loturarik gabe | 6. Arantzak: eztenak, “pintxoak” | 11. Ekiteko: egiten hasteko |
| 2. Ortozik: oinutsik     | 7. Erauzteko: ateratzeko         | 12. Erantzi: biluztu        |
| 3. Bilakatzen: bihurtzen | 8. Euripean: euriaren azpian     | 13. Ziur: zalantzarik gabe  |
| 4. Harago: kanpo, urruti | 9. Atertu: euria egiteari utzi   | 14. Duda: zalantza          |
| 5. Askok: anitz          | 10. Zain: itxaroten              |                             |

- ▶ Kanta berriro entzungo dugu eta, entzun bitartean, irakurri eta kantatzera ere gonbidatuko ditugu; ondoren, erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta!
- ▶ Solasaldia egingo dugu<sup>2</sup>: zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko...
- ▶ Badok.eus ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu unea.

**Oharra:** KORRIKA-kantei buruzko galderak “KORRIKAn ibilbidea 2022” jolasean topatuko dituzue. Halere, nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako Korrika-kantak:

<https://www.argia.eus/albisteak/korrika-abesti-guztien-bilduma>

<sup>1</sup> Ikusteko, jo hona: <https://www.youtube.com/watch?v=nNAsgjgmHIk&t=3s> (22. KORRIKA-kanta)

<sup>2</sup> Solasaldia egiten laguntzeko, ikusi “2 albisteak TITULARRAK.odp” dokumentua, pantaila handian ikusteko pentsatua. Aurkezpen moduan ikusiz gero, titularrak “efektuekin” ikusiko ditugu. Bestela, “2 albisteak TITULARRAK.pdf” ere eskura duzue, nahiago izanez gero.